

## **Atzerritarren Legearen aplikazioari buruzko Mozioa**

Gauza jakina da Espainiako Atzerritarren Legeak bi mailako herritarrak ezartzen dituela: Europako Batasuneko herritartasuna dutenak batetik, eta gainerakoak bestetik. Lehenak eskubide guztien jabe, eta bigarrenak oso eskubide murriztuekin.

Lege horren alderdi atzerakoenetako bat EBtik kanpoko herritarrak bi urtero Errolda berriztatzerara behartzen dituen araua da, zeina duela gutxi indarrean jarri baita.

Arau honekin, bestalde, udalak inplikatzeko dira hobe beharrez gure herrira iritsi diren etorkin hauen bazterkerian. Izan ere, batetik, lege horrek behartu egiten ditu udalak berariaz Erroldaren berriztatzea burutzen ez duten etorkinen baja ematera, hauei aldezturiko entzunaldirik eman gabe; eta bestetik pertsona horien inguruko informazioa poliziarri ematera ere behartzen ditu. Neurri hauek oinarrizko eskubideak nola kaltetzen dituen EAeko Arartekoak berak aipatua du, arau honen aplikazioaz egindako txostenean. Guzti horrekin pertsona hauek guztiak susmagarritzat jotzen direlarik, jendartean sor litezken jarrera xenofoboak sustatu baino ez da egiten.

Gehiegi azpimarratu beharrik ez dago erroldan egoteak etorkinentzat duen garrantzia. Oinarrizko zerbitzuak eskuratu ahal izateko ezinbesteko baldintza dute Errolda: osasun-zerbitzua, hezkuntza edota etxebizitza kasu. Bestelako euskarri juridikorik gabe dauzkagun pertsona horiek, Errolda dute eskubide-berme bakartzat.

Horregatik guztiagatik, eta legearen ginetik justizia eta pertsonen berdintasuna daudelako, honako MOZIOA aurkezten du Getxo Bizia Taldeak, Getxoko Udal Batzak bere egin dezan

- a) Getxoko Udalak interesdunei jakinarazita eta modu automatikoan, luzatu dezala gure herrian bizi diren atzerritarren erroldatzea.
- b) Ez diezaiola Getxoko Udalak pertsona hauei buruzko informaziorik eman inongo poliziarri.
- c) Getxoko Udalak pertsona hauen eskubideak berma ditzala, bereziki osasuna, hezkuntza, etxebizitza, intimitatea eta duintasuna.

Getxo, 2006ko Otsailaren 16an